



Izen-abizenak:	
EBALUAKETA	Taldea:
GAIA: Zenbaki hamartarrak – Buruketak	Data:

OHARRA: *Prozedura argi eta garbi azaldu behar da.*

Erantzun guztiak bi hamartarretara biribilduta eman behar dira.

- 1) Gorako jauziaren gizonezkoen munduko errekorra Javier Sotomayor kubatarrak du 2,45 m-rekin, eta emakumezkoena, Stefka Kostadinova jauzilari bulgariarrak 2,09 m-rekin.



- Zenbat metroko aldea dago bien artean ?

a) _____ metroko aldea dago bien artean.

- 2) Kamioi batek 110 kaxa laranja garraiatzen ditu eta kaxa bakoitzak 2,5 kg ditu. Laranja kilogramo batek 1,15 € balio ditu.



- Zenbat kilogramo garraiatzen ditu guztira ?
- Zein da kargaren guztizko prezioa ?

a) _____ kilogramo garraiatzen ditu guztira.

b) _____ € dira karga guztiaren prezioa.



Izen-abizenak:	
EBALUAKETA	Taldea:
GAIA: Zenbaki hamartarrak – Buruketak	Data:

3) Arkatz-dozena (12 arkatx) batek **1,8 euro** kostatzen du biltegian (saltzaileak erosten dituen lekuan), eta liburu-**dendan** **0,3 euro**tan saltzen da arkatx bakoitza. Zenbat irabaziko du saltzaileak 156 saltzen baditu? Galdera erantzuteko kalkulu batzuk egingo ditugu aurretik.



- Zenbat dozena erosi behar ditu 156 zaldu nahi baditu ?
- Biltegian erositako arkatx **bakoitzagatik**, zenbat ordaindu du saltzaileak ?
- Zenbat irabaziko du arkatx bakoitzagatik dendan saltzen duenean ?
- Zenbat irabaziko du 156 arkatzak saltzen baditu ?

- a) _____ dozena erosi behar ditu saltzaileak.
- b) _____ € ordaindu ditu saltzaileak biltegian erositako arkatx bakoitzagatik.
- c) _____ € irabaziko ditu arkatx bakoitza saltzeagatik.
- d) _____ € irabaziko ditu 156 arkatzak dendan saltzeagatik.

4) Julenek hiru pakete orri erosi zituen eta bakoitzak 2,35 € balio zituen. Gero bost karpeta erosi zituen. 20 €-ko billetearekin ordaindu zuen eta 4,20 € itzuli zizkioten.

- Zenbat ordaindu du hiru paketeak erosteko ?
- Zenbat ordaindu du karpeta bakoitza ?

- a) _____ € ordaindu du hiru paketeak erosteko.
- b) _____ € ordaindu ditu karpeta bakoitzagatik.